

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ.
63n. ZENBAKIA
EPAILLA
(MARTIA)

MINISTERIO DE CULTURA

PROVINCIA DE BIZKAIA
Presidencia a las 10,30 horas del día
18 de Mayo de 1983
Delegación Provincial,

[Handwritten signature]

[Handwritten signature]



**AMOREBIETA'KO ITUNBENA
KARLA'TARREN II GUDEAREN AZKENA
(MAI ONETAN IZENPETU ZAN)**

JOXE MIKEL OSPATSUA

SENITARTEKO

Lerro oneek agertzen diranera-ko, senitar-tean sartu yaku, Joxe Mikel Barandiaran bere loba bat, nire seme Txomin'egaz ezkondu dalako.

Au dalata, Gipuzkoa'ko gizon jakintsu ta ospatsuari buruz, zerbait idatzi nai neuke gure ZER aldizkarian.

Joan dan Urrillearen 30'garrean, Arabako txoko batean eza-gutu genduan alkar.

Besarkada bat emon eta gero, asi zan gure ezaupidea.

Egun ederra ta gogogarria igaro genduan, ta GERO ARTE esanaz agurtu giñan alkar.

AITA MIKEL: Zu gorago, emen-txe jarri zaitez.

An jarri ta beste guztiei begira egon zan alkarizketan, ta esaten eutsoezan itaunari erantzuten.

DONOSTIKO OMENALDIA

Gizon ori **BALIOKOA** izan bear da, bere idatzi ta itzaldiakaz, bere inguruan **EUSKALERRI** guztia **BILTZEKO**, gizon azkarra edo trebea izanez:

Langilleak, ikas-zaleak, abes-batzetan dagozanak, ta batez be **ANTROPOLOJIAN** sartuta ibil-ten diranak.

Onela lana egiten zan len, goi-zetik gabera, orregaitik gure **ERRIA** edo gure **EUSKALERRIA** zan Españaiko erri guztietatik aurrelariena, naiz dantzan, naiz jola-sean, naiz urruztizkiña azkenengo basetxetara eroaten, nai mendi tontorretaraño errepide ederrak egiten... ta kale inguruan asiera emon orrenbeste **OLA** edo fabri-kei, emengo guztiak lana eta janaria eukiteko.

Orretarako lana egin bear da eten barik.

Gaurko gazteai buruz diñosku ago betean, Joxe Mikelek: **LAN EIZUE TA EUSKALERRIA GORATUKO DOZUE, ZIUR TA BENETAN**, bestelan, **EZ**.

Izan be: Españaiko lur-aldeetan aurrenengoak izan gura bai dogu, **LANAK** ondu edo goralduko gaitu, beste era batera esanda: **LAN-POZAK BETEKO** gaitu.

Ez alperkeriak edo nagitasu-nak, ez daukagu beste biderik.

Ain zuzen, nere bizitzan sendi asko ikusi dodaz gorantza egiten, igogalluan legez, familia berau senperrenak egiten asten danean.

GURE GIZONEN BURUKI-DEA

Bere buru ganean ipiñi geinke: Joxe Mikel Barandiaran, Ataungo gisa-seme ospetsua, Euskaldun lur-aztertu, Lur barriak ikertzen dituana, Benetako euskaldun jatorra, Eten bako langille amorratua, Sinisdun sakongo apaitz bikaña, Gorengo mailla bateko gizon jakintzua eta ikertzaille borrokatua.

Ikasbide eder au jarraitu daigun **DANOK**.

Bilbo,n gabon-illaren 27'garrean, 1982'garren urtean.

ETXEBERRI'tar Isidro



Ona emen iru gizaldi: Barandiaran'dar bi ta Etxebarria'tar bat.

Berba gitxiko gizona, apala, ixila, ikusi, somatu ta erantzun egiten eban bakarrik. Gizonak, gizonak diranak, iru nolakotasun oneik euki bear dabez: Lana ugari egin, ixila izan ta azkenez, bere burua iñoz ez goraldu.

Gure bazkari-denboran, azkenengo toki batean jesarri gura eban, baña neuk esan neutson:

Bere omenaldian **J. I. URIAK** esan eutson: **Danok BATU GAITUN** gizona zara zu.

IRAKATSI AUNDIKOA

Gizon onek, nekatu barik, gau ta egun, emen, or ta an, toki guztietan lana egin dau ixil-ixilean.

JENTILLAK BARRIRO?

ARATUSTEAK

Aratusteak zirala-ta, Donostia'tik irrati-bidez entzun genduzan jai-eratzaille baten berbak pentsau-azo egin euskuen eta emen agertzen doguz pentsabide oneek.

Jai-eratzailleak gitxi gorabera onelan berba egin eban. Momo jaungoikoaren aurrean: «Eskerrik asko, Momo jainkoa, gure jaiak adoretuteko etorri zaralako! Zure laguntzaz jai zoriontsuak igaro nai gendukez: Jan, edan, dantzatu, barre egin, atsegindu...»

Berba orreik, txantxetan esanak izango dira, baiña ba-dauke zer-pentsau.

SUSTRAIEN BILLA

Euskaldunok aspaldion gabiltz gure jakintza bereziaren sustraien billa eta bi milla urte atzeratu eske-ro, jentillen giroa aurkitu dogu. Ori adieraztendauskue orduko sorginkeriak, ipuiñak, abestiak, eta abar.

Errigintzan be ortik etorria dogu demokrazia edo erri-agintaritza, ortik euskaldunen izaera bereziaren len-oiñarria. Ez, gero, Momo jainkoa euskalduna zalako! Garbiketea egitekotan Grezia ta Erroma'tik atorria dan Momo ori be kanpo geratu bearreakoa litzake.

LEENGORA

Eta sustrai orreik aurkitu doguzanean, batzuk euskaldun jatorrak izateko orduko euskaldunak lakoak izan bear dabela uste dabe eta orduko oiturak berbiztu nai dabez. Marijaia, Momo, Xixili, akelarreak, Olent-zero... asmo orregaz sortutakoak dira.

Baiña erri baten kondairan bi milla urte kendu ete leitekez? Gizonak, jatorra izateko, ume-aroko oiturak eta jokabideak artu bear ete dauz?

Bi milla urte oneitan sartu diran oiturak guztiak onak dirala ezin esan daikegu, baiña zergaitik ez azterketa egokia egin eta onak aukeratu ta txarrak baztertu. Eta ori ez oraingoetan beste barik, bi milla urte orreen aurretikoetan be bai.

Ez da lan erreza erri osoak egin-bearreko azterpen au, baiña bai danean lengora jotea baiño egokia-goa.

KRISTIÑAUTASUNA

Euskalerrriak kristiñautasuna, astiro-astiro-onartu eban, naizta euskaldun bakoitxaren eta Erri osoaren barruan beti izan jentilkeri zaarraren jokabideak.

Eta kristiñau-jokabideak onura aundi ta ederrak ekarri dautsoz Euskalerrriari. Ba-leiteke zeozetan kaltegarri be izatea, batez be gizonen jokabideagaitik, baiña Barri Ona artzeko solo ona izan zan gurea eta solo onean azi onak ondoren onak sortu dauz.

Gaur be ondo datorkuz Barri Ona'ren bideak, gutariko bakoitxaren eta Erriaren jokabideak aztertze-ko argi lez, jokabide okerrak salatze-ko ta zuzenak indartzeko.

Alkartu beitez ba kristiñauen bidean jarraitu gura daben euskaldunak eta euren ikuspegi berezitik emon begioe Euskalerrriari ain bearrezkoa dauan argibidea.

ANAI IÑAKI OLABEAGA

Lenago be birritan idatzia naz aldizkari onetan ANAI IÑAKI OLABEAGA'RI buruz, orregaiti gaur be labur-labur oroimenez eta bere alde, ZER'EKO idazleak otoi bat Jaunagana zuzendu dagien.

Otsaillaren iruan il zan Anai Iñaki Irun'en 81 urte zituala.

Gizon zintzoa, irakasle leiala, Jainko-zale sutsua ta euskaldun eta euskal-zale bete-betea.

Bere bizitza guztian gizon apal eta zintzo agertu izan da.

Donostia'ko biotzean, kai portu-ondoan jaio zan.

Antxe euskal giro oso-osea artu eban euskal gizon lez beti biziteko.

Gazte-gazte sartu zan SALLE-TARREN anaidian eta antxe iraun il arteraiño.

Anaidian egin ebazan zin-eskeintzak oso-esoan betetan ezagutu dogunok ikusi dogu.

Jainkozale sutsua une guztietan, irakasle leiala Anaidiko ikastetxe-kolegioetan.

Millaka ta millaka gazteren biotzak osotu zituan eta zuzendu betirako bizitza onetan maite eben eurak irakasle ona zalako, alaia euren beste edozein lagun lez.

Euskal-arloan gutxi lako langillea.

Euskera bere barruan sartu txikitatik eta egunero indartu eban.

Euskal idazle errikoia: Or ditu iru olerki-idazti argitalduak, eta bere gelan geldituko ziran argitaldu baga milla ta milla poema bigun biotzetikoak.

Bere euzkalzaletasunak eroan eban Belgika'ko erbesteratzeraiño, Zarautz'en euskera irakasten ebalako ikastetxeko gazteen artean, Gipuzkoa'ko Gobernadoreak kendu erazo eban.

Salletarren artean euskeragandik aldendua izan zan beste lekaidet ta lekaimen antzera.

Eta Anai Iñaki'k, ekin ta ekin zabaldu eutson euskerari atea, nekez, atsekabe askorekin baiña iraun ta iraun Salletarren artean sartu zan indartsu euskera, orregaitik orain anairik geienak euskaldun bero beroak dira.

Errikoi euskeraren maitaille zan, Gipuzkoarra izan arren bizkaiera bere ederto ikasi eban eta irakatsi be bai emen Bilbo'n. Bizkaia'n urte asko igaro ebazan: Arboleda, Sestao eta geien Bilbon

Euskal-meza Bilbon lenen ipiñi zanean deitu neutson eta igandero abestiak zuzendu irakatsi, irakurgaiak aldaraan irakurri eta beste liturgi arazo askoren arduradun zan. Beste parroki askotan amazortzi urte luzeetan lan ikaragarria egin eban. Azkenez urteak eta bere nagusiak eroan eben Irun'era eta santuen antzera il da (GOIAN BEGO ETA DAGO).

*Bai da eder ederra
santun eriotza
eder ta zoriontsu
O Iñakin lorratza
Euskaldun idazleen
biotz urratu da
Iñaki'gaz galdu da
eder zan atala
Baiña goietan geitu
euskaldunen aldra
Siñismenak diñosku:
«Ori orrela da».
Bake ta zoriona
zuretzat da beti
guregaitik be otoi
zagozan goi goitik.*

GALLASTEGI Klaudio

BATZAR NAGUSIA

(1982'ko ekintzen azalpena)

Agur lagun maiteok:

Ona emen gure etxean batu garala, urteroko Batzar Nagusia ospatzeko. Diru-egoerea azalduta gero, niri dagoikit ekintzen azalpena emotea. Ona emen ba, «Euskerazaleak» 1982'ko urtean izandako ekintzarik agirienak:

IKASTAROA

Aurten esan bearrean gagoz, euskal ikastarorako emondako izenak, asko ez ba'da be, apur bat gitxitu dirala. Igaz laureunetik gora ikasle izan genduzan, etan aurten 400 bat. Gitxitze ori azaltzeko, esan bear dogu, leku askotan euskera irakasten dala, gero ta euskaltegi geiago zabaltzen dala. Gaiñera, ba-leiteke leengo urteetan euskeraren alde izandako adorea zoezer otzitu izatea. Dana-dala, aurtengo ikasleen kopuruak urrengo urteetan be iraungo dauala uste dogu.

Igaz be, azkenengo urteetan atondutako Uda-ikastaroa, Ibarra'tar Bernardo'ren zuzendaritzapean izan dogu. Iru maillatakoa izan da, eta 100 bat ikasle izan dira tartekoak.

Alkarrizketa-ikastaroak arrakasta andiaz jarraitzen dau, oiko erantzun ona izanik.

IPUIN - SAKIKETEA

Aspaldiko oiturari jarraituz, igaz be Ipuin-sariketean atondu genduan, eta oi lez, lan asko aurkeztu zan. Ona emen iru sarituak:

1'go. Saria — «Iturriaga» ipuiñari. Aurre-Aprail'tar Balendin. 2'gn. Saria — «Mintxiri» ipuiñari. Penades Bilbao'tar Yosurena. 3'gn. Saria — «Martintxu» ipuiñari. Batiz' dar Bingen'ena.

Izandako erantzun ona ikusirik, aurten be beste Ipuin-sariketa bat eratuko dogu.

«ZER» ALDIZKARIA

«ZER» aldizkaria, Olazar'dar Martiñ'en zuzendaritzapean beti lez illero agertzen da, eta orain arte joandako bidetik jarraitzea asmatzen dogu, au da, irakurgai errazak, Bizkai'ko erri-euskeraz danok ulertzeko gai izan gaitezen. Uste dot, gure jokabidea zuzenbide egokitik doala, baiña arazo onetan zuek zarie epailleak, eta au dala-ta, eskertuko geunkizuek zuen eritxiak.

LAGUNTZAK

Euskerearen arloan gure asmoak aurrera eroateko, bear-bearrezkoa da diru-laguntza izatea, bai euskera-irakaskintzaz aurrera joateko, bai gure aldizkaria argitaratzeko.

Diru-laguntzari buruz, aitatzekoa da Bizkai'ko Aurrezki Kutxaren laguntza, eta Bizkai'ko Aldundiarena. Erakunde bi onei eskerrak, gure egoerea ona da, eta euskeraren alde lan egiten jarraituko dogu. Bioakie biai «Euskerazaleak»en eskerrik beroena. →

EUSKERAZALEAK

Legezkoa ba'da erakunde orreik gorestea euskeraren alde egindakoa-gaitik, Bilbao'ko Udalaren laguntza-eza aitatu bear da emen. 1981'ko urtean onen onen gandik dirutza bat artu genduan, eta igaz gure ekintzaren azalpena bialdu izan arren, ez dauskue ezetariko laguntzarik emon. Eta au negargarriagoa da bizkaieraren alde egiñaz gaiñera, gure «ZER» bizkaieraz agertzen dan aldizkari bakarra dala egizatzean. Tamala dogu olako zertzeladak emotea, baiña egiari zor jako orretariko jokaerak salatzea. Aurten, gure Udalak igazko utsa atzinduko dauala uste dogu.

EGUTEGIA

Igaz, aurtengo egutegia gertatu dogu. Gure ustez, au benetako euskeraren aldeko ekintza onuragarria da. Esan daiteke egutegiari esker, etxe askotako sukaldean egunero zeozer irakurten dala euskeraz, eta izan be, au garrantzi andiko gauza da.

45.000 ale banandu dira, eta irakurgaiak geuk atonduta, irartaldiaren eralguntza Bizkai'ko Aurrezki Kutxaren kabuz izan da, eta au dala-ta, ordainketa andia dala olako egutegia ataratea esan bear dogu. Barriro be, gure eskerrik sutuenak Bizkai'ko Aurrezki Kutxari, euskeraren alde egindakoagaitik.

Amaitzeko esan dagigun, egutegirako lan andiena Olazar'tar Martin'ek bere gain artu dauala, bai idazle bai zuzendari-aldeetik.

KILI - KILI

Bearrezkoa da, umeak euskalduntzearen Retolaza'tar Jose Antonio'k bere gain artutako aldizkari onen ardura ta buruausteak aitatzea. Eta Kili - Kili gure babespean dagoan ezkerro, bidezkoa da aren barriak emotea.

Dakizuenez, Kili - Kili'k ekintza bi beteten dauz. Ikastaroa ta ume-aldizkaria. Leenengoa alfabetatzeko, bigarrena alfabetatzeari eusteko.

Orrezaz gaiñera, beste ekintzak batzuk be beteten dauz: Kili - Kili eguna, Kili - Kili jaiak, eta Kili - Kili - argitalpenak.

Betekizun bi orreik egiten ez ba'dauz, oso geisorik dagola esan geinke. Eta bat bakarrik egiten ba'dau, errenka dabillega. Au dala-ta, igaz, Kili - Kili errenka ibilli dala esango dogu: ikastaroa aurrera eroan dau, baiña aldizkaria ez da agertu, eta au esan bear: Gernika'n izandako Kili - Kili eguna ospakizun ederra izan arren.

Euskeraren etorkizuna txarto ikusten dabe Kili - kilikoek. Euskaldun zaarrak badoaz, eta barriak,

ume euskaldun barriak ez datoz orreik doazan giñoan. Eta datozenak jatortasuna galtzen doaz. Eta gaurko umeek zaarrakaz eten egiten ba'dabe, euskerak bereak egin dauz.

Baiña guraso asko, kaleko asko, Eusko erakundeetan dagozan asko ez dira larritzen, geisotasun ori ikusten ez dabelako. Umeak eskoletan euskaldunduko dirala uste izaten dabe. Baiña berba egiten, etxean ikasten da, etxean eta onen inguruan jolasten batez be. Eskoletan izkuntza ori aberasten eta edertzen da. Etxean eta onen inguruan ikasten ez dan euskerea, berbeta illa da. Eskolan irakurten eta idazten ikasiko dabe, baiña euskera parra-parra egiten, euskaldunekin etenbako jardunaz ikasten da.

Orain-arte, eskoletan barruan maisu-maistrak umeai erderaz irakasten eutseen, baiña kanpoan umeek euskeraz jarduten eben. Gaur, leku askotan irakasleek euskeraz irakasten dabe, baiña kanpoan jardutean, umeek erderaz egiten dabe. Azkok uste izaten dabe, jolasetan erdera erabili bear dala.

Kili - Kili IKASTOLA ta JOKOA da. Orain 17 urte sorturiko erakunde onek, ezin dauz bete ume euskaldunen aldeko bere asmoak.

Ikastola izan ezik, Euskalerrian euskaldunen aldeko ez dago beste erakunderik Kili - Kili baiño. Non dagoz gure eusko Erakundeak ori ez ikusteko?

Kili - Kili erakundeon, gurari oneko andra-gizon, neska-mutil batzuk euren buruak ukatuz lan egiten dabe. Baiña ganorako lana egiteko, beste baldintzak bete bear dira. Ez dira naikoa eusko Erakundeon maietatik jausten diran apurrak, ume euskaldunen euskerea, il-zorian dagoan euskerea ondapenetik atarateko. Eusko Erakundeak, Kili - Kili seme kutuntzat artu bearrean, zergaitik umezurtz itzi dabe? Zergaitik olako zuzenbakegeria?

Kili - Kili'k urtero olako itasunak egin bear ba'dauz, ez dau lan sakonik egingo. Aurten, laguntasunik izango ete da? Nok lagunduko dautso, eta zenbateko laguntza izango ete da? Eta noz izango da laguntza ori? Orra or lagun maiteok, Kili - Kili'ren aspaldiko ta gaurko egoera.

«Euskerazaleak»ek au ikusirik, Euzkadi'ko Erakundeai dei larri bat egiten dautse. Gitxi dira umeek euskalduntzeko Kili - Kili aiñako lan egokia egin dagineanak. Or dago, umeak euskalduntzeko aspalditik sortutako talde egokia, eskale antzera aterik-ate joka, iñondiko laguntza artu eziñik. Egia izango ete, euskerarekiko gure maitasuna itzetan amaitzen dala? Itzak aizeak eroaten dauz, eta gure euskerea emen dogu gero ta geisoago, gure ekintzak arhes zoroetan galdurik.

ZUBIRI'TAR IÑAKI

"EL BATUA" TA EUSKERA MORDOLLOA

Idazkera bi oneik, «El Batua» ta euskera mordolloa, batera dabilzala esan geinke «el batua» ori sortu zanik geiago. Arantzazu'ko Batzar ospetzu tamalgarria ospatu baiño lenago batzar batzuk egiñak ziran euskal idazle mordo bat, dakigunez Bayona'n asita Arantzazu'ra arte.

Batzar orretariko batera deitua izan nintzan ni be, nai-ta asko idatzi dodan gure euskera maite onetan, ez ninduen idazle lez gogotan artu, egun biren barruan Ermua'n bildu gintzaran batzarra izan zan bera. Eta, ez zan oso azkarra izan bearrik bertan bildutako batzuren aurrerantzako jokatibidea zetarikoa izango zan igarriteko euskera idazkeran.

Gure artean izan genduan gudadeta zatarrak baiño lenagotik genkian, aldi atako Euskaltzaindia zintzoan izan ziran euskera batu bat egiteko izketan barri, euzkalki bat oiñarritzat artuta euskera aberats bat antolatzeke izketa zakonan barri, baiña, batzar onetan ez zan ikusi erabagi arei irauteko asmorik, euskera garbi ta txukuna indartuteko asmorik, ordura arte guk ez genkiazan euskera garbiaren aurkako asmo nazkarriak baiño.

Urduantxe entzun nebazan «batua»tzazko lenego itzak eta, Batzar ori antolatu ebanan jokabideak norantzako bidea artuko eban, egia esateko noraño elduko ziran ez ba'genkian be.

Ondo gogoraizen naz bertan gengoan geienai lez egin eusten

galdera, euskera batu bat bear gendukelata ea zer deritxan eta, itz bat edo beste auxe erantzun neutsen:

Ara, danok dakizuen lez, ni bizkaitarra naz, baiña bizkaitarra baiño lenago euzkotarra eta, euzkotarra lez euzkalduna ta euzkalduna izanik benetan atsegin izango litzake neretzat euzkera garbi aberats bat eukitea. Orretarako, nire ustez euzkalki bat artu bearko litzake oiñarritzat, gero beste euzkalkietatik itzik onenak artu ta ele edo izkuntza aberats bat egiteko. Orretarako, bizkaitarra lez naigo neuke bizkaiera artuko ba'litzake oiñarritzat, baiña, ez nintzake asarratuko gipuzkoera edo naparrera artu arren benetako euskera izan ezketiño.

Au izan zan Bilbo'ko Grabieli Aresti'k emon eusten erantzuna: «Jakiña! Altuna'k nai daua euskera Partido Nacionalista Vasco fundau eban Sabino Arana Goiri'ren euskerea da». Orain amabi edo amairu urte salaketa bat ziran itz orreik, bada, batzar guztietan egoten zan francotarran bat eta, onetara erantzun neutsan, gero bakarrean gogorrigo erantzun ba neutsan be:

Euskera ez da ez Sabiñ'ena ez bestena, euskera euzkaldun guztiona eta euskera ikasi nai-daben euzkotar guztiona da. Arana eta Goiri'tar Sabiñ'ek egin ebana da beste iñork baiño geiago zustrai-

tik ikasi ta euzkotarrok geure izkuntza landu (zuk egin ez dozna) eta ikasten bultzatu, euskera maitasuna euzko-lurralde guztian zabalduaz...

Egia esateko pizka bat mindu egin nintzan Aresti'ren salaketa areikaz eta, zerbait geiago bere esateko gertu ba'nengoan be, beti egoten da asmu onekoren bat ba-kea egiteko eta, orretan geratu zan, gure asarre ori.

Ez ziran baiña, Aresti'ren astakeriak bakarrik batzar eretan entzun, ba'ziran gipuzkotar batzuk euskera garbiaren aurka azaldu ziranak, eure semea-labatxuek «berokia» baiño «abrigua» esatea naiago dabela esan ebanak eta abar luze bat, orretara erakutsiten emonaz euskera garbiaganako gorrotoa eta euskera mordoilloaganako erretasuna, geien baten euskera garbia'(ainbat geigo bizkaiera ba'da) ganako gorrotoa, geienbaten euskera garbia Sabin'dar euzkeratzat artzen dabelako edo aintzakotzat ikusiara-zo nai dabelako abertzaletasunean ondo oiñarrituta ez dagoznen artean.

Ordua da bada euzkotarrak, bear ba'da bakoitzaren zalekerik alde batera laga ta euskera garbi ulerkor baten, erriaren euskera landu ta danok bat-batean izkuntza aberats bat egiten aleginduteko ordua, Euzkadi benetako euzkaldun-erria izan daiten.

ALTUNA'tar Josu

AMOREBIETAKO ITUNBENA (I)

(Guda-Astea)

Madrid'eko Duke jaunaren aolkuai jarraituz, talderik eragilleenak nagusi urten eban. Duke jaun onegaz Gonzalez eta Bravo'tar Luis egin zan bat, ikurrin lez Karla erregea artu eta onen asmoak aurrera aterateko.

Orduan Karlatarren buruzagi zan Nozedal'tar Kandido ezin ekarri izan eben gudarako asmo oneitara.

Orrelan, 1870'ko guda-asmoak utsa emon eben.

Baiña ez ziran atzeratu, bildur barik aurrera egin baiño. Gonzalez Bravo J^a'k al bait ariñen egin gura ebazan gudarako gertakizunak eta orretarako lanean asi zan.

Asmo orreik aurrera eroateko, non bideak, bitartekoak eta dirua?

Baiona'n egin eben batzarra eta Bizkaia eurakanatu bear ebela erabagi eben, ba-ekielako Bizkaia'n jentea minduta egoala bertako foru-ordezkarriak arerioen indarrez giltzaperatuta, espeteratuta, egozalako.

Emon eutseen ba euskaldun bizkaitarrai barria eta gertu egin

bear zirala esan eutseen, gudaroste aundia batuta, España'ko beste alderdi batzutan asiko zan egun beratan gudea aste. Guda au aste batzutan amaituko zala esan eutseen eta illabetekoa baiño luzeagoa izan ezkerro, gudea irabazi arren be, zori txarrekoa izango litzakela.

Bizkaia'n Karla Erregearen asmoak biotz onaz artu ziran eta alegiñak egin ebezan bear ziran 30.000 ogerlekoak batzeko.

Nor izango ete zan gudate onetan Bizkaia Jaunerriko Buruzagi?

Zalantza barik, Arginzoniz'tar Antonio J^a. Berau zan nagusitza onetarako egokiena, langillea, gogotsua ta buru argikoa zalako.

Aitatu dogun Gonzalez Bravo'tar Luis J^a'ren lagun zala, onek gertatu eban bigarren Karlatar-Gudea. Baina Gonzalez Bravo J^a il egin zan, berak ainbeste lan eta ardura artu arren, iraultetaren eginkuderik ikusi barik.

Karla Errege jaunak Euskalerriko ta Naparroa'ko buruzagi

Diaz de Rada'tar Eustakio J^a aukeratu eban. Bizkai'ko Arginzoniz J^a'k ikustaldi asko egiten eutsozan oneri errialde onetako lanak atondu egizan. Lanak ikusteko eta eurakaz berba egiteko, azkenez, Baiona'ra joan zan.

Sorozpide, laguntza ta eskuarteak eskatu eutsoezan, ardura aundiaz, 1872'ko epaillaren 18'an, iraultetea asi baiño egun gitxi aurrerago.

Aren oarri jarramon eginda, ardura barik egoteko esan eutson Rada J^a'k, sorozpe ta laguntza barik inok ez ebala urtengo etxetik kanpora, gerratera-ta.

Geiego be eskini eutson: Bizkaia'n gudari karlatarrak bear eben ogi zati bakoitza be ordainduko zala, Erregeak orrelan agindu ebalako. Eta ori baiezteko Errege-Idazkaritzatik artutako eskutitzaren berba oneik irakurri ebazan: «Gudarako deadarraren ostean, zortzi egun barru, gure zaldiak Ebro ibaian ura edango dabe»:

Arginzoniz'ek esan ei eban: Jainkoak nai izango al dau ori ;Beteko al da itxaropen ori!»

Eta iraultetarako aginduai itxarroteko barrero Durango'ra joan zan. Karla Errege J^a'k izendatuta, Uribarri'tar Frantzisko J^a etorri zan jaunerriko gudalburu izateko. Laster etorriko zan iraultetarako agindua be.

Karla Errege jaunak España guztian gudea egiteko jorraillaren 21'n. eguna aukeratu eban eta bere eskuz idatzitako gutunak auxe iñoan: «Ginebra'tik, 1972'ko jorraillaren 14'an. Rada laguna: Eldu da une gogoangarria. Il onen 21'ean asi daitela gudea agintzen dot». Jaungoikoak gorde zaizala. Karla.»

LETONA'k



MAITXU ONETAN IZENPETU ZAN AMOREBIETA'KO ITUNBENA (Karla'garraren 2n. gudearen azkenean).

BATZAT NAGUSIA

Azkeneko abendu onen 28'an ospatu zan, Tolosa'n, Kardaberaztarren urteroko Batzar Nagusia. Lekuona'tar Imanol zuzendari zala. Pozik emango degu «Euskerazaleen» aldizkari ontan billera aren berri, an izan ziran bada kardaberaztarrekin batera, lau probintzietako Euskerazaleen ordezkariak ere.

Ain zuzen, Araba'ko Euskerazaleen izenean mintzatu zan Karrera'tar Joseba, Gasteiz'en euskera erakusten ari duten lanari buruz.

Zuzendariak, Lekuona'tar Imanol'ek, «Euskaltzaindiari Epaiketa» deritzan liburua izan zuan bere mintzaketa gai: Latiegi'tar Bixente'k eta Oñatibia'tar Dunixi'k argitaratu-berri duten liburua. Izan ere, Lekuonak berak eskatu zuan erain dala urte-pare bat, Tolosa'n bertan, Kardaberaztarren Batzar batean, Euskaltzaindiari epaiketa bat egin bear zitzaio-la.

Liburuaren euskera, atsegiña eta bikaña dala, esan zigun Lekuona'k. «Estiloa..., zoragarria!» izan ziran «Euskaltzaindiari Epaiketa»ren idazkera aipatzerakoan, erabilli zituan itzak.

Liburuan esaten dan guzi-guzia, egia da; egi utsa —jarraitu zuan esanez—. Asko giñan egi oiek ezagutzen genituanak. Baiña beste askok ez zituzten ezagutzen. Eta esan bearrak zirak. Esanik gelditzen dira orain, eta era jatorrean esanik.

Kardaberaz Bazkuna, Lekuona'ren idaz-lan guztiak argitaratzen ari da orain, eta naiz aurten idaz-lan oien bildumako beste liburu eder mardul bat argitaratu, zorrik gabe aurkitzen giñala jakiñarazi zigiten Karberazko idazkari eta diruzaiñak.

Batzar osoak, beste liburu batzuen argitaraketan asi baiño len, Lekuona'ren lanen argitaratzea amaitzea erabaki zuan.

Liburuei buruz, Latiegi'tar Bixente'k eta Oñatibia'tar Manu'k itzegin zuten gero.

Bixente'k, kardaberaztarren eskeari erantzunaz, Euskerazko «Euskaltzaindiari Epaiketa» liburuaren gai berak erabilliaz, beste liburu bat, erderaz gertutzen ari dala esan zigun. Liburu ortarako Oñatibia'tar Dunixi'k batez ere, eta Gaztañaga'tar Josu, ta baita Bixente'k berak ere, bildutako izparingi eta aldizkarietako idazkietaz baliatu omen da. Erderazko liburu au, euskerazkoaren gaiak beste era batera aztertzen ditualako, eta an azaltzen ez diran gai berriak ere jasotzen ditualako, luzeagoa izango omen da. Irarkolan dagoala esan zigun eta bi illabete baiño lenago azalduko dala, Bixente'k berak eta Oñatibia'tar Dunixi'k izenpetua, onek eman omen dizkio bada, izparringietako idazlanik geienak.

Manu', Euskalerrri osoko parrokiatarako Igande-Orrri bat Euskeraz argitaratzeko asmoan, lanean as-teko garaiean gaudela esan zigun. Eman omen dute ba, Euskalerrriko Gotzaiak, ortarako beren onespina. Asmo ori orain dala urte luze bat Kardaberaz Bazkunak artu zuan. Eta baita aurreneko urratsak eman ere eman zituan. Baiña gotzaien ongi-etsia bearrezkoa genuala ortarako, eta aien eskuetan utzi zan arazoa. Orain jaso degu Gotzaien erantzuna: aurrera jarraitzeko, baiña «Orrri» ori Elizaren izenean ez argitaratzeko. Bapo! Bazkunak bere izenean argitaratzea erabaki zuan, ortarako Manu'ri bearrezkoak ziran korapillo guztiak lotzeko eskatuaz.

Sukia'tar Joxemari, Garmendia tar Junjoxe eta Garmendia'tar Mattin idazkari-diruzaiñei eskerrak emanaz amaitu zan Batzarra, eta Euskera errikoi jatorraren alde lan egiteko biotza galdetan zutela irten ziran bazkideak.

IÑAKI OLABEAGA, OLERKARI

Zugatzak ez ete tristerik orri bage? Era berean euskera idazle barik. Eta ainbat joan jakuz azkenaldian: N. Etxaniz, I. Berriatua, N. Alzola, Gaztelu, Elbira Zipitria, Norbert Tauer, Bordari, Iñaki Olabeaga. Lutuz daukagu, ba, euskal literatura, ainbat idazle zintzo ta eder galdu ditulako. Ez dabe geiago euskeraz idatziko.

Aurten, otsaillaren 3'an Jaunak berarenera eroan euskun Iñaki. Eta Bordari, biak egun berean. Agur, adiskide miñok, or bestekaldean alkartu arte! Bordari'ren aitamena urrengo illerako itxirik, Olabeaga Anaiaren gomuta izango dogu emen.

GIZONA

Ez, etzan edolako giza-semea, aundi, jakintsu, apal eta biotz-zabalekoa baiño. Donostia'n jaiola. Arrantzalea eban aita, edo obeto itxas-ontziki pilotu. Bost anai ta iru arreba izan ziran; Iñaki sailletarra egin zan, amalau urtegez Irun'go Lasailletarretan sarturik. Emeretzi urtekin asi zan erakusten Irun'go San Martzial ikastetxean. Eta orretan ekin eutson bere bizitza guztian Baiona'n, Lille'n, Zaragoza'n, Zarautz'en, La Arboleda'n, Sestao'n eta Bilbo'n.

Irurogeta emeretzi urteko zala-ta, bere nagusiak, zaar saritu lez, Irun'go Lasalletarren ikastetxera bialdu eben oraintsu. Nik an aurkitu neban. oindiño bizkor, izurzatar euskaltzale jator Bitaño il zanean; oindiño bizi guraz, ain zuzen. Baiña gizonaren gurarien gaiñez dago Goikoarena. Eta Aren deia izan dau Iñaki Anaiak.

Gizaseme lez ba-zituan bere izate barruan aparteko griña ta kezkek. Ez dago zetan esanik, guztiz maite eban bere amak erakutsi eutson izkuntza, eta euskaltzale amorratua agertu jakun nun-nai ta beti. Gazteen ezitzaile ta maisu zala, maisu on eta aspergatxa, beti alegindu zan gazteai euskaltzaletasuna ixurten eta euskeraz erakusten. Atzerri-izkuntzetan, frantses eta ingelesez batez be, etzan motela, bai-

ña euskera izan gure izkuntza, eta berau ari ta oni erakusten etzan egungo nekatzen. Au ba-dakie, ondo be, a irakasle izan ebenak. Au zala-ta, bein baiño geiagotan, andik ona erabillia izan arren.

Zugatz mardulak ikuspegi asko ditu; baita Iñaki Olabeaga'k be. Nok ez daki lasalletar euskaltzale onek Bilbo'ko eleizetan egin eban euskal-lana? Orain ogei bat urte dirala galazota egoan Bilbo'n euskal mezarik emotea; benetan txalogarriak garai atan utsune ori beteteko ainbat ate jo ta bizkortu ziran andra-gizonak. Orrein artean ebillen Olabeaga Anaia be. Bilbo'ko euskaltzale guztiak dakien arren, egoki ta zuzen dator emen, Gallastegi'tar Kauldi, San Anton'go txauburu izanak, illeroko onetan berton igaz azilleko zenbakian idatzi euskuna.

«Baitipat —diño—, berari esker ona, emen euskal liturgiaren alde egiña dauen lan aundiagaitik. San Anton eliza onetan, Bilbon lenengoz, euskal meza, burrukalaria, ipiñi genduanean, Anai Iñaki utsean eskeindu zan lan egiteko. Euskal eliz abestiak batu, eurak erriari irakatsi ta elizkizun guztiak, berberak zuzendu, izan ziran bere lenengo lanak. Geroago, Indautxu'ko Jesuiten elizan euskerazko meza ipiñi zanean, an be, bera zuzendari. Urteak aurrera ta emengo eliz askotan ez egoan euskerazko liturgi libururik, edo abadeak ez ekielako euskerarik, edo ez ebelako nai euskerarik, Anai Iñaki an doa bere liburuakaz, sendiak euskerazko illeta nai ebenean, zuzendari ta bizkortzaille. Bilbo onetan bere euskal mezak asko ugaritu dira urteak zear, eta geitze orretan be, Anai Iñaki'k zati aundi bat ipiñi dauala, ezin ukatu. Ama-sei urte oneitan arlo onetan egin dauan lanari, zenbata eziñakoa deritxat».

Esker ona, beti eder. Eta orixe dagi On Klau-dio'k, be, bere laguntzaille zintzoak, nagusien esanera, «burua makur-makur», begietan eutsi ezindeko negarra agirian eta biotza egiz arriturik, Irun'erako bidea artu ebanean. Ez jakon errez ainbat urtez bizi izandako txoko atsegiñeko lokarriak ausi ta alde egi-

tea. Biotzak ba-daukaz, bai, adimenak ulertzen ez dabezan gauzak.

81 urte zituan il zanean. Urteak dira, baiña kon-
turatu barik eltzen gara urte orreitara. Oar-azo ordu-
ko dago, egon be, lainoak urrin laga dauan ur-tanta,
itxasotik artua, barriro be itxasoan. Bardiña dogu
gure bizitz egalaria: etzara konTURatu ta mugan aur-
kitzen. Zerbaiten leraz lan ba'dagizu, oraindik ariña-
go orduak aizatzen. Esan dogu, Iñaki Olabeaga lana-
ri emona bizi izan jakun: erakusteari, barne-bizitzari,
ederrari. Ez aitzu: eder-zale zan, arima eder baten ja-
be. Ondu ebazan olerki-lanetan itxi euskun barru
eroian izate bikaiñaren zati bat. Nik ortan ba-dot zer
esana edo esan-bearra: ia urtero, emen izaten gendun
Olerti-Egunez, alai ta ongille.

OLERKARI

Ezta, ba, izutzekoa ederrari omena egiten jakon
egunez emen izatea. Ez eban askorik idatzi, ortan
jarduteko astirik ez eban-eta. Alan be, aren lumatik
urtena ezti-abau edo orrazia baizen gozoa dozu. Be-
rak eta Bitano'k sorturiko «Nora?», «El Bidasoa»,
«Euzko-Gogoa», «Olerti», y «Egan» eta olakoetan
idatzi eban. Sestao'n aurkitzen zala, asti-uneak
eukazala-ta, olerkiak idazten asi zan, gerora iru libu-
rutan argitara emonak. Ona: 1) *Gogoetan* (Bilbo,
1972); *Maite dedana* (Erandio, 1975), eta 3) *Biotz
iturritik* (Bilbo, 1977).

Lenengo poesi-sail ederra dozu. Neurkera asko-
tan, berezko senez eginda, maitezko ta osterantzeko
lan arin leunak. Bigarrena lau sailletan banandutako
liburua: saiaketak, amalaukoak, bertso tankeran eta
antzin liturjiko jai-egunetan zear eta Begoña'ko
Amari egindakoz jantzita; neurri askotan taiutuak
oneik be, gozo ta aitu-errezak. Irugarrena, berrogei
olerkiz ornidutako idazti mardula, idurimen eta bio-
tzondoiz gaiñezka. «Txotx» izen-ordea erabiltea, atse-
gin jakon.

Gai askotan dardarazo eban bere arima bake-
tsua. Esku artean daukat une onetan aren irugarren
olerki-liburua, «Biotz iturritik» deritxona. Irakurri
dot guztia eta gauzarik zeenetan olerkari bete-betea
dala esan bearrean naukazue. Gaztetan ei da norbait
olerkari, orrela autortu dabe beiñik-bein; gazteak,
egia dozu, goi-goira jo nai dau, beste iñor goi-alde
orreitara igon ezpalitz lez, Kosmos nai dau atrapa.
Zartzarosan, ostera, norbere ezereza ezagutu ondo-
ren, gauza txikietara jo daroagu, Jainkoaren lorratza
gauza pitiñetan be aundietan baizen diztitsu
daukagula-ta.

Olan datorkigu Olabeaga bere azken liburuan,
gauza txikien aztertzaile. Sarritan, izan be, lora txi-
kiak apaiñago emon oi dabe baratz-artzean, goregi
igondeko buru eskergadun laino-zaleak baiño. Sagar
naiz beste edozein frutetan be, aundiegiak ez dozuz

ederrenak, ezta gozoenak be. Txikiak ba-ditu, beraz,
bere alderdi egokiak.

Edertasuna maite dau, ta onela kantatzen:

*«Edertasunean murgilduta
nai nuke nere burua ikusi.
Argitasun dizdira dunekin
estu-estu bat egiñez bizi...»*

*Txukuntasuna ederra dala,
zalantzan jartzen, nor ausartu?
Garbitasuna begi-lillura
dala, iñolaz ezin ukatu.*

*Soñuz bete-betiak nai ditut
nere bizitzaren egun danak.
Beltz-aldiak ziara baztertuz
lortu eresi-argi alaiak.*

*Nai nuke... nai nuke edertasuna,
oraingoa, beti-betikoa.
Baiñan ori dana... Zu bakarra,
Nere Jauna... nere Jaungoikoa.»*

Argia maite dau. Arrapau nai leuke, eutsi; baiña
ozta-ozta ikutu, arin ige dagio-ta. Illunpekoai dei da-
gitse, arriturik:

*«Satorrak, nola bizi zerate
argirik gabe?
Gabeko ontzak, nola illuna
maite dezute?
Orregatik, noski, zuen soiñak
beltz dituzute.
Bero billa nabil
bai at, bai barruan.
Kemenez beruakin naiz lau,
otzakin uts-uts.»*

Maite dau euskalduna, eta euskera. Euskera ilten
daukagu, eta lo gagoz gu, mirari bat agertzen eta dan
zain. Iñaki'k negar:

*«Zer ari gera euskaldunak
ezurrari muiña kentzen?
Zer ari gera euskaldunak
gogoaren bizia iltzen?
Ail larria gureal
Euskera maite danok
t'ezin bat egiteal
Burrukan euskaldunok...»*

Eta, azkenez, bere bizitaldia abestu dau,
udabarria urrin, lora ta atsegiñez. Ames, itxa-
ropen, abesti; baiña joan zan arin, eta orain
negua edurretanburu zuri. Ondo igaro dau.
Ederto diño: «Sinismen elburu artuz / bizitz
osoa da atsegin». Jainkoaren zerbitzari beti.

AITA ONAINDIA

“AITA ARRIGORRIAGA”

Olan deitzen eutsoen bere eza-gunak, prailien artean beintzat, naita Pedro Landeta Azkueta izenaz bataiatua, edo geroago, Karmeldar jantziar batera, Sakramentu guztiz Santuaren Aureliano deitua izan.

Nor dogun «Aita Arrigorriaga» jakinerazteko idazten dot idazlan au. Aldaretan jartzeko norbait dala, praille santua dala, berba gitxitan esan neinke. Euskalerriko semea izan eta be, ez dau praille orrek entzute andiriki gure artean. Ez da arritzekoa, bere bizi luzea urrundiko mixiñoetan emon ebanez.

Bizkaiko seme bekar bat dogu oraiñarte aldaretan: Balendin Berriotxo doatsua. Baiña azken urteotan aldarako bidean aurrera egiten daben mordotxoak ikusten dogu. Nire Karmen'go Lagunditik at joan barik, or daukaguz iru santugai: Berriztarra lenengoa, Aita Juan Bixente Zengotita-Bengo; Abadiñotarra bestea, Aita Zakarias Salterain; eta irugarrena, Artunduaga-Besauriko «Aita Arrigorriaga», Aureliano Landeta.

Bizkaitarrak barruan dauken balioa atara ta agertu eragiteko, kanpoko, batez be mixiñoetako, giroa bear al daba? Orrela dirudi, «Jainkoaren iru Serbitzarion» bizitza azertuaz. Urrundiko errietan santutu ziran, lanean ekin eta ekiñez, atertu baga.

Pedro, Artundiaga'n, Basauri'ko auzunean jayo zan, 1887'ko Ekainillaren 27'an. Bere gurasoen izenak: Pedro Landeta Perea eta Maria Antonia Azkueta Arrieta. Aita Artunduaga'koa ta ama Zaratamo'koa. Beste Euskal Erriko familiak lez, Pedro'rena kristiñau sutsu batena genduan. An izan eskolatua gero santutasun-eskolan maixu izango zana. Eguneroko egitekoa izaten asi jakon gazteari Meza entzutea, eta adiñera eldu zanean, baita bertan serbitzea be.

Laster somatu eban Karmen'go Lagundirako deia. Urte asko geroago, il zan urtean ain zuzen be, India'ko gaztiei egindako itzaldi baten auxe iñotsen: «Zuek ikusteaz poztuten naz. Nire lenengo urteak gogoratuten dodaz. Zuok lez gazte nintzanean, gure parrokira itzaldiak egitera etozan Karmeldarrai adi-adi begiratuaz, praille-bizitza aintzakotzat artuten asi nintzan. Prailleok ikertzeko-ta nire gurasoak pozik emoten eusten baimena ta beta. Bein, amar urte-edo neunkazanean, prailiei aurkeztu ninteaken. Oneik parroko jaunagaz konpondu ziran, eta amabi urtedun nintzala Karmeldarren ikastetxean artu ninduen. Nire amasei urtetik oraindiraiño praille izan naz, nire ogei urtetik abade, eta mixiolari ogeita seikoa nintzanetik. Ez naz iñoiz tristetu nire bokaziñoagaitik, ostera, ni pozik bizi izan naz. Eskerrak zuzenduten dautsodaz bide onetara deitu eustan Jaungoikoar, eskerrak baita ain gazte nintzala olako erabagia artuteko azi ninduen gurasoai, eta eskerrak olan edo alan nire praille-abadetzan jarraitzeko lagundu eusten eta parte artu egin eben beste askori. Ni neu praille ta abade naz. Abade izan barik praille izan lei, edo, ostera, praille-eskeintzak egin baga baita abade be. Bakotxaren zoria ona da. Nirea ainbat geyagoa, praille ta abade batera nazalako. Au da bai zoriona!»

Gaztetatik erakutsi eban Pedro'k mixiñoetara joateko gogoia. Lengusiña bateri, eta Karmeldarra be-rau be, esan eutson lez: «Mixiñoetara joatea erabagi neban eta, nirez egoanez, dei orretan eriotzarre jarraitzeko. Denis eta Redento, Karmeldar martiriak, zoriontsu izentatu ziranen jaietan, 1901'an, Naparroa'ko Villafranca'n nintzala artu neban erabagi ori».

Dei orrek eskatuten ebana ondo beteteko, Aureliano'k bizitza guztia santutasunera zuzendu eban, eginbearrak zeatz-zeatz beterik. Lenengo Meza emon eta gero, 1910-an, mixiñoetara joateko asmoa obeto beteteko Erroma'ra joan zan, bitartean India'n Abadegaien Ikastetxe Nagusian irakasle izateko izentatu eben-eta.

Aita Zakarias Salterain lagun ebal, 1912'an Seminario Nagusira eldu zan. Or batera Bizkaiko seme bi santutasunean alkarren leian eta aldaretako urratsetan ur ur dabilzanak! Biok santutu ziran etxe batean ain zuzen be: Puthenpally-Always'ko Ikastetxe Nagusian. Emen berrogeita amar urtetan emon eban bere bizitza, ekin eta ekin bearrean, irakasle, arima-zuzentzalle ta Erretor-Nagusia lez. India'ri eskeiñi eutson bere bizitza, eta an jardun eban bere lenean iñoiz andik kanpora urten barik.

Gizon jakintsua zan Aureliano, arimako zeregiñetan batez be. Zeregiñoek geyenetan abadeen gogonerakoak ziran.

Iñor iñoiz bizi zala santutzat artua izan bada, ez bai barik Aita Aureliano izan jakun. Ori argi ta garbi esan neinke, urte askotan ezagutu nebalako.

Ez eban bakarrik bere burua ta biotza landatu, besteena santututen ekin eban gau ta egun. Ba-eukan nun lan egin, bere ardurapean millaka abadegai igaro ziran-eta. Ez gañera ejenplu ona emonaz bakarrik, orrez gañera, irakasle lez, bai eskolan baita berak idatzitako iru liburu mardulen eta beste idazlanen bitartez. Maixu zan ortan!

Bizkaiak ba dauko zertan arrotu, baiña bere seme santugaietan batez be. Eliz Amak dau azkenengo berbea zeregin onetan, baiña «Aita Arrogorriaga»ren santutasuna onartuko dabela uste osoz itxaroten dogu.

Joseba ZUBIKARAIÁ

Euskalerritik Mundura Begira

EUZKADI

Ezin egongo gera beti kanpoko munduari begira ta, gaur, begira dagiogun gure erriko munduari: Gure Euzkadi maite oneri. Obeto esateko begira dagiogun gaurko Euzkadi onen sustraiei joan dan mendeko Euskadi'ri, eta bereiziki joan dan mende ortako gizon aundi bereizi bateri: Arana eta Goiri tar Sabin maixuari.

XIX mendean eratu zan gaurko Euzkadi'ren giroa, Euzkadi'ren itxura, eta Itxura eta Giro oien antolazallea Sabin izan genduan. Gaurko Euzkadi'k dauzan gauzarik onenak, geienak, ia danak, Sabiñ'eri zer dautsoz, eta emen Euzkadi'n gertatzen ari yakan gaiztakeri geienak, ia danak, euskotarrok Sabiñ'en erakusketari uko eginda, beste bide batzuetatik jo dogulako gertatzen yakuz.

* * *

Bizi dira oraindik azkeneko guda nazkagarri artan Euzkadi'ren alde izkilluekin mendiam edo politikaren arloan ibilli ziren gizonak. Il dira beste batzuek: Il ziran Agirre Lendakaria; Landaburu, Irujo, politikariak; il ziran Aitzol, Lopez Mendizabal eta beste idazle eta yakintza-gizonak; Il ziran zuk eta nik ezagutu genduzan ainbeste eta ainbeste gudari zintzo maitagarri aiek. Batzuek borrokan il ziran, beste batzuek, Aitzol eta Lauaxeta lez, fusillatuak; beste batzuek, adiñak il ditu. Gizon aiek, jatorriz, aberastasunez, eta yakite-neurritz, ez berdiñak ziran: baserritarak, langille kaletarrak, arrantzaleak, saleroaleak, irakasleak, eskolara doi-doi joanak, jakintza aundien jabek, dirutsuak, txanponik gabeak, ez txiro ta ez aberats erdi maillako jendeak...; benetan, bai, ezberdiñak ziran gizakume aiek. Baiña ba-ebezan guztiek ezaugarri berdiñak: Kristau sendoak izateaz gaiñera, demokrazi-zalantasuna, zuzentasunaren gurari, egia-aren maitasuna, joku garbiaren naia, indarraganako gorrotoa, besteen gogabideenganako begirunea, errespetua, etsaiari gorrotorik ez izatea, pertsona guztienganako adeitasuna...

Doai eder, bikain, zoragarri oiek danak, bai al dakizu non ikasi ebezan gure aberkide aiek? Eusko Alderdi Jeltzalean. Eta ¿nondik jaso ebezan alderdiak berak? Sabiñ'engandik.

Guda iguingarri artan, euskotarrak ez baiño españiar fatxistek sortutako guda zopotz artan, abertzaleek zaindutako Euzkadi'n ez zan odolkerik, ez zan zuzentasunaren aurkako makurkerik egin. Eta, an edo emen, zerbait okerrik egin ba'zan, zerbait ori ez eben abertzaleek egin, abertzale ez ziran jendeek

egin eben, eta abertzaleek oartzeke. Guda-lekuetan abertzaleek ez eben baiturik, prisionerorik, il; espetxeetan ez zan etsairik fusillatu. Alderantziz, abertzaleek berak zaintzen ebezan baituak eta espetxetuak, abertzale ez ziranak makurkeririk egin ez egien.

Arriturik ikusi zuan mundu guztiak orduango Euskotar Abertzaleen jarduera.

Al baiña..., ez zan ori, aspaldi ezkeror, euskotarren jokaera. Zenbat astakeri ez eben egin euskotarrak karlisten gudaketan? Bai, gutxienez, atzerritarrek aiña! Eta, leenago, zenbat gaiztakeri ez zan egin emen Aide Nagusien borroketan? Nondik etorri yakon gure erriari, mende onen aurreneko erdian, ondo jakatzen jakite ori? Sabiñ'n erakusketatik!

Orain ordea, ostera, Euzkadi odolkeriz, lapurkeriz, eta gaiztakeriz betetzen ari yakul: Zergaitik? Sabiñ'en erakusketa eta Sabiñ'en pertsona bera zapalduta euskotar batzuk (EE, HB, ETA), karlisten pentsaerara eta Aide Nagusien jokabideetara itzuli yakuzalako.

Gure Euzkadi abertzalea ezitzen lan aundia egin eben gure apaizek. Entzun baiña! Apaiz oiek ez ebezan gizarte-onbide oiek seminarioetan ikasi! Seminarioetako irakasleak, danak, Sabiñ'en denboran, karlistak ziran, indarkeri-zaleak, fatxistak beren gizarte-pentsaeretan. Sabiñ'engandik ikasi ebezan gure apaizak, eta Sabiñ'eri zor diogu guztiok, II Batikan Kontzilio-aurretik, gure pentsaera Kontzilio orren eraoko izatea.

Pozik eskeintzen dautsat Sabiñ maixuari nere esker onaren au; eta Sabiñ abertzale, egin zuen, aren anai Koldobika'ri; eta, leenago, Galizi'ko La Guardia'n, ikastetxo batean, Arana Goiri'tar Koldobika abertzale egin ebezan jesuitei. Ez doguz jesuita aien izenak ezagutzen, eta agian ez doguz beñere ezagutuko. Bedi aientzat esker ona.

* * *

Aita Mauro Elizondo, Estibaliz'ko Abatak, agitartu-berria dau Liburu eder bat, oraindik ezagutzen ez genduzan Sabiñ'en idaztiak gure begien aurrean jarriaz. Abertzale, euskaldun, irakurri eizu libur ori. Bere izen-burua: «SABINO ARANA PADRE DE LAS NACIONALIDADES», erderaz idatzia bait da. Ez dautsut bere goratzarrerik egingo. Irakurri eizu. Zeuk egingo dozuz goratzarre guztiak.

LATIEGI'tar Bixente

Oarra: Aipatutako liburu onen irarkola: «Editorial de la Gran Enciclopedia Vasca».

LORATXUAK EZ ZAPALDU

Laterri edo enda bakoitzaren izakerea, urkoentzako daben begiramen-na ta gizarte -aroa jakiteko, erri-alde bakoitzean urietako iragarkiak irakurtea langorik ez.

Laterri batzuk, naiz-ta demokrata izeneko jaurlaritzak izan, agintekeri (ditadura) zentzunekoak dira izan, euren burutapen eta egitada guztietan. Demokratikak direala uste daben agintariak asko dira baiña barrun-bean daben menperatzaile-zentzunak bultzatzen ditu, berez-berez, euren egitada guztietan: Enda batzuk, izakeraz dira, ba, menperatzaileak eta beste batzuk, ostera, Errien azkatasunari lotsea izaten eta urkoaren gizatasunari be begiramen izaten dakienak.

Mundua ibilli izan dan edonok ikusi izan ditu lorategietan, kale-ertzetan eta abar, alango edo olango idazkunak; batean zeozer galazoten, bestean zerbait adierazten eta abar: Errialde batzuetan bigunkiro ta beste batzuetan meatxuz.

Laterri batzuetan, batez bere gure inguruetaoetan, naiz-ta gizabidetsu ta demokratizatzen euren buruak etsi, beti aurkitu daiegun, gogorkerizko itzez eta zemakuntzaz idatzita, zeozer galazo bearreko idazkunak: «*Prohibido el paso bajo la multa...*» edo antzekoak. Beste Laterri batzuetan,

osteraz, izakeraz bigunagoak, gizabidetsuagoak eta gizonaren izakerea begiramen geiagor ikusi daroenak iragarki maitekorrak ezarri daroer zeozer galerazo bear daitenean be. Esaterako, Venezuela'n, lorategietan eta abar «*No pise su grama*» dauken iragarkitxu bigunak daukez. Emen, Euskalerrri'an be, sarri irakurri izan doguz, eta oindiño bere irakurri geinkez, zoritxarrez, menperatzaileen zentzuz egindako iragarki gogorran batzuk, baiña ez, gero, gure izakerea orrelango dogulako, geurea ez dogun izkuntzan ezitakoen zentzunak ezarri dauzalako baiño. Euskeraz irakurri izan dodaz, baiña, errietan, orremen, bigunkiro, zentzuz eta maistasuz egiñak bere.

Oindiño urte asko ez dirala, Bermio'ko kai-aldeko egurastokiko loren artean, aulango idazkuntxu politik egozan: «*Zeure loratxuak ez zapaldu*». Auxe bai, benetan, eskakizun bigun eta polita. Olan bigunkiro eskatu ezker, ez dago loratxueri ez beste ezeri bere kalterik egin legikeonik, lotsez jagon baiño.

Gu mutikoak gintzazanean, gure erriko elizpean, aulan eukan idazkuna egoan: «*Leku onetan pelotan egitea galazoten da*». (Ez da euskera jator-jatorra baiña, euskeraz).

Nik neuk, uste dot, ixunez (multaz) eta abar, gogortasunez ezarri gura izaten diran aginduak, gogo txarrez eta bildurraren baiño ez direala betetan. Besteak, osteraz, bigunkiro eskatzen direanak, barriz, gogo onez eta zintzo bete daroer erriarrak. Alde andia dago, ba, erri-alde batzuetatik beste batzuetara, gizosteari legeak beteazoteko erabili daroeran aginduetan. Bai-ta, ez txikia, Ebro'z andiko ta emendikoen zentzunak be, onetan eta beste egiñen askotan.

Abereak eurak be, xeratsu ta bigunkiro artuezkero, otzantasunez egin daroer agindu daroatsaguena. Baiña gogor artu ba'daitez artu, goragoraka asi oi dira. Bai gizon eta bai abere, guztiori izaten yaku, ba, gogoko, besteakandik begirunea izatea.

Gure bultzietako, trenetako, burdian bere, ementxe diñodana egizatzen dauan idazkuntxuak jarri dauz gure jaurlaritzak: Betikoak lez, «*Se prohibe fumar*» gogor-gogor, erderaz; eta euskeraz, «*Ez erre*» bigunkiro. Zeuk goznartu, irakurle, euskeldun jarraitu edo erderara makurtu zelango aldaketa egin daroan gure landukereak, kultureak, eta, bai-ta, izakereak bere.

AURRE-APRAIZ

ZUZENKETA BATZUK

Aldizkari onetan, Altarako Liburua atontzen diarduenari, Kerexeta jaunak dagitsoezan burubideeri ondo deritxet; baiña, *Geure Aita*'ren ondorengo esataldian *gaozala* adizkera itxusia baiño akats aundiagoa bere ba-dago, nire eretxiz, arean.

Aitaturiko esataldian, musika bagakoan, beintzat, «...noiz etorriko dan zain gagozala» dauko; eta, «...noz etorko zain gagozala» izan bear leuke. Ez da, ba, ereski edo nota bat edo biren kendu-ipiña baiño, eta obeto ta egokiago euskeldun-entzumenetarako.

Ama edo anaia edo dana dalakoa, «noz etorko nago» esan daroagu euskeldun jatorrak eta ez, «noz etorriko dan zain nago». Bestera esatea, euskel-sen bagakoen euskera-gaiztozko esakera lorrriña dogu. *Gaozala* ezain baizen nabarmen ori nik neuk ez dot iñoz entzun izan iñungo iñun. *Gagozala* laburtuta *gaozala*, bai, osteraz esan oi da gure errietan. «Artu eizue ta edan» Sagarako itzetan be, *tae-*

dan, euskerearen berezko legez ereski batean ezarri ezin daitekezan izki bi dagoz batera.

Mezatan darabilgun euskereak euskel-zentzun andi bagarik egindako esakizunak ugari ditu eta aspaldion dabilen zuzenketa batzuk egiteko asmua; eta alango asti-une- ren baten egin bere egingo dodazala uste dot.

Bear ba-da, euren artekoa ez daitenak (eliz-gizon ez daitenak) olango zuzenketa egitea abadeen batzuri gogoko ez izatea be ba'liteke, baiña euskerea guztiona dogu-nezker, datorren lekutik datorrela ontzat artu bearra daukagu geure izkuntzearen onerako daitenean. Orixe zanak esan eroianez, euskeldunak bata besteari ikasten diardugu.

Aitatu dodan zuzenketa ori baldin egin ba-dadit, euskereaganako maitasunak eragiña izango da, ba, ta ez beste ezek.

AURRE-APRAIZ

A D O R E Z

Gizarte errukarri,
otsoak ei dabiltzaz
zu iruntzi nairik,
Ardiz jantzita datoz
irri-par likitxetan
ortzak zorroturik.

Leoiak letz orroa...
gorrotozko griñetan
zuriz jantzi nairik,
artalde gizajoa
nora ezeen dabil
jopu biurturik.

Maite dodan erria,
gal-zorian zakusdaz
eriotz miñetan;
eguna gau ein al da
ala zentzuna galdu
eriotz bidetan...?

Zelan zuzendu leike,
zapaltzez ta odolez,
giza bizitzea...
ukabil ta burdiña
iltzailleen eskuetan...
il jake fedea.

Beti, erria aitatzen
t'erensugea legez
edenez beterik;
esna-adi euzkotarra,
egiaren indarrez
lur au askaturik.

Euzko seme zintzoak,
gudan zauritu ta illak
daukadaz gogoan;
odol a deika dago
samintasun garratzez
azur muin osoan.

Abertzale garbia,
zu zara gaizkatzaille
euskaldun lurretan;
Aberria zain dago
adorezko gizonei
zuzentasunetan.

PAULIN

AUTS BIURTUKO AZ...

Egubasten onetan asi da, kris-
tauak,
garisma aldia.

«Jaungoikua'gana zuzendu zaite-
ze»

Eleza Aman itzak.

Baña etxaku aiztuten, lendik
esandako

egi itzel andiak.

Autsa baño, eskara...

* * *

Alperriko lana, burua goraldtu,
ta beitu bestiak sorbalda genetik.

Aintza ta onespina, Jaunarenak
dira.

Autsa baño, ezgara...

* * *

¡Jaunak eindakoak!
Ezaiztu, ba Jauna,
zeure eskuetako, egiñak garala.

Ez itxi betiko
gu, ludi onetan,
lurren azalian, loa ta lupetza.

* * *

Nik ikusi dot, gela illun batean,

zulo txikitxutik, sartuta izpi ede-
rra.

Eguski izpi orrek,
aizian egazka dabilzen satarrak,
urre gorrizko autsak, eder dizdi-
tsuak
bigurtu beinguan.

* * *

Zugaz bizi ezkeru
pozik nago, Jauna, zeure dizdira-
ko,

errautsa izatiaz, orain eta gero.

UTARSUS

B I R A U A

Buruaren edena...
biotzaren erdokaz
posoi biurtu da.
Miña dardaratu dau
moskorkeria zarrak,
gaitzez, eraginda.

Ausardikeri baltza
lapurretan diarduk
Aitari Berari.
Ain txikia izanik,
zer uste dok eitea
Bizitza denari...?

Sinismenik ez ba-dok,
zoroaren antzera,
nor nai dok iltea?
Sugegorrizko miñez,
iretztat ez danari,
zer nai dok eitea...?

Gizon sinismenduna,
zer jazo jak buruan
lizunkerietan...
noraiño arrotu jak
biotzaren griñea
irain ezaiñetan...?

Epoa ausartu dok
leoiaren aurrean,
eupaka mendian.
Ain abere txikia,
basajaun ikusirik,
jausi dok lurrian.

PAULIN

FELIPE GONZALEZ ETA EUSKERA (DISKRIMINAZIÑO)

Gabonilla edo Abenduaren lenengo egunetan, Laterriaren Lendakari Felipe González Márquez jaunak esan deuskunez, Euzkadin gaur-egun aukera da Euskeraren alde, erdaldunen kalteetan. Diskriminaziñoa.

Oraindik Euskera Erderaren neurrira eldu aal izateko, urte asko pasa bearko dabez. Noizko ori lortu? Bidean asi besterik ez dogu egin eta orra zenbat keixa. Ez nolanaikoak; gizon ospetsuen aotik irtenak...

Ikusten dogunez Euskerak beti morrontzan biar dau eta burua jasotzen asten danerako, makilkadea burutik beera.

* * *

Baiña, gizon onek, ez beste askok be, ez daki nolako morrontza larrian bizi izan dan Euskera; andaluzia da eta Andaluzian ez dabe orrelako buruausterik izan. Diskriminaziñoa zer dan jakiteko, irakurri bear leuke Arturo Campion'en «Blancos y Negros» eleberria. Gure ume euskalduneri, kultura eurak ez zekien izkuntzan emon dautsee beti. Orrelako torturarik ez da ondiño munduan asmatu, emen baiño.

* * *

Ori ez zen izan Campion'en asmakizun bat. Emen neure etxean daukot, neure amak egiñiko jostorraz-lan bat lauki edo kuadro batean sartunda. Urtea be badauko: 1.900.

Bere ezpañetatik irtenda eta neure belarrietatik entzunda daukot, bera umetxua zanean zer gertatzen zan eskoletan. Goizean goiz, eskola asten zanean, umetxu bateri jartzen jakon atzamarrean eraztun bat. Arek emon bear eutson Euskeraz itzik eta ber-

barik egiten eban umetxuari eta onek beste bateri. Orrela egun osoan. Negargarrizko salakuntza sortzen zan umetxuen artean; bai ba, eraztuna azken eukanak, kastigu zitala artzen eban bere bizker gaiñean.

Kultura izkuntza arrotzean emotea ez zan naikoa, egarria kentzeko ura belarritik emotea lez, zapalkuntza agertzeko; gaiñera umetxuak tortura larritik pasatzera beartu egunero-egunero... Orrelako astakeriak nolan onartu eta eraman ditu euskaldunak...! Makilletara oituta egon, nunbait.

* * *

Nik neuk ez dot eraztunik jaso bear izan; tortura aundirik be ez. Lekeitio'n jaio arren, Barakaldo'n bizi gintzan eta erderaz mintza; orregaitik, Lazkano'ra bizi izaten aldatu gintzanean, zortzi urte nebazala, erderaz banekian; baiña, neurekin egozan lazkanotar umetxu askok tutik be ez. Maixua bilbotarra zan, gaztea eta ez zekian Euskerarik. Nere alboan eskolan ezartzen zan laguna Antonio Arkaiaga zan, Lazkao-txiki bersolariaren auzoko baserritarra. Lista pasatzen eban maixuak eta guk erantzun, «servidor de usted». Maixuak Antonio Arkaiaga esaten ebanean, gure mutilla zutunik ipintzen zan, eta onela erantzuten eban serio-serio:

—Sardiña uztel.

Kristiñau Dotriña izan zan Euskeraz ikasi eban gauza bakarra. Baiña, Dotriña artan be, zelango Euskera? «Jainkoa da... justoa, poderoso, gauza guztien prinsipioa eta fiña». Eskolan ori ere erderaz. Mandamentuak: «Amar a Dios sobre todas las cosas». —Eta ori zer dok?—. «Jainkoa amarratzeko

soka guztiaz»... Orra gure kultura eta gure kultura-bideak. Azkenerako mutiko eta neskato euskaldunak, gorrotoa Euskerari. Tortura tortura gaiñean Euskera zala-ta...

Itziar'en bizi izandako donostiar bateri entzunda daukot, bera eskolan Itziar'en ebillela, kantu bat ikasi eben:

—«Arre niña bi puzkar...

Baiña, kantuak esaten ebana auxe zen: A reir y a disfrutar... Barre ala negar?

Orixe bai dala gizarte-erakundeek sortutako «diskriminaziñoa»!

* * *

—Gauza zarrak dozak orrek...! Esango dau baten batek.

Esango dautzut berrigorik be.

1936, guda madarikatua sortu ondoren, laister frentea Ondarrua'n egoan; bitartean Gipuzkoa'ko errietan kartel luze-zabalak ebezen gorri eta ori, esaera onekin:

—Si eres español, habla el español.

Ori bakarrik izan ba'litz ez zan geiegirik izango; baiña, ondorengoa ez zan bapere ohea. Donostian bizi nintzan eta etxeoandreaki zazpi pezeta ordaintzen neutson egunero lo eta janagaitik. Egun baten negarrez egertu zan etxean:

—Zer dozu negar egiteko?

—Nere anaiakin topo egin dot Abeniden eta Euzkeraz berba egin dodalako, *eun* pezeta kendu deusta multa: ogei zidarrezko ogorleko mando...

Eta ez zan bera bakarrik izan.

* * *

Beste bein, Donostian bertan, Loiolako kuartelera goiazan tranbia bete soldadu. Danok Euskeraz. Orretan, an egoazen bi falenjistik deadarrez ekin eutsen kantuan:

«Los separatistas vascos
no lo pueden remediar,
si se juntan tres o cuatro,
empiezan a rebuznar.
La cucaracha, la cucaracha...»

Tranbia bete soldadu geratu zan ixilik eta mutu. Euskera baztertuta toki guztietatik, elizetan ez ba'zan. Ogeita amar urte zapalduta. Urte oietan «Basarri»k egin dauan lana irratitik eta izparringitik, egunerokotik, Euzkadik ez dio sekulan bear bezela ordainduko... Eun urtetik gorako zapalketa; oiñazpian artuta Euskera. «Diskriminaziñoa» ei da gaur Euskeraren alde!!!???

Aizken aldiko gertaerak beste kontu batzuek goguz. 1969'an batuberrizale mordo bat agertu zan iñolakoak Baserri'ri aurpegira boaten, Z-Argia asterokotik, euretarikoa egin ez zalako. Asko ziran (amaika asko da eta arek amaika baiño geiago ziran) ba-

ten kontra. Gizon balienteak. A bakarrik ez zan izan; besterik be bada. Ona emen «Euskal Elerti 69», Lur Editoriala, 1969, Donostia, zer dakarren 547 orrialdeen:

«AZKEN OHARRA.

LUR/KAISELU/HASTAPENAK euskera-
ren batasunaren serbitzuan jartzen dira. Beren jautapen-jautapen-konseiluak Gabriel Aresti, Xabier Kintana, Ramon Saizarbitoria eta Ibon Sarasola'rekin osaturik dagoenak euskal gaistoko dialeko mordoiloetan idatzitako lanak ukatuko dituela jakin-arazitzen du, eta bide batez euskeraren batasunik nahi ez duten euskaldunak euskeraren eta Euskal-erriaren atsiak direla deklaritzen du. Are geiago negarreztatzen du batasun hori gonbatitzen dutenen portaera, bereiziki Eizmen-di'ter Iñaki «Basarri» jaunarena, zainak, Euskaltzaindiak Arantzatzun hartutako erabakiak onartuko zituela publikoki manifestatu ondoren, bere hitzari ez dion eutsten. Seguru asko bera hitza eman zuelako batasun hura bere dialekto mordoiloa izanen zela ustean.»

AMEN.

AMEN.

* * *

Arrezkero Euskera, korta-usaiña duala-ta («dialekto mordoiloak»), baztatu egin bear da eta erail, eurak, euskaldun-berri kaletarrak, sorturiko Euskara, Hacheduna, indarkeriz sartzeko burutik beera... Zapalketa berriro. Gaurkoa zantarragoa, etxebarrutik dariona. Lengoa zan amorragarria; oraingoa, negargarria.

Ba .omen da ikastola bat (ez dot uste bakarra izango danik), bertan zapalketa egin dana euskaldun umetxoen kaltean. Lengo eskolak, erdera sartzeko; orain, berriz, Euskara Batu fenomeno bat burutik beera sartzeko. Irakasleak, Batua besterik jakin ez edo, betiko Euskeraren jabe ziran umetxo baserriterak zapuztu eta suspensio emon Euskeraren arloan. Irakasleak berak jaso bear zuan zigorra, umetxoen bizkarrera bota.

Ezagutzen dot gau-eskolan Euskara Batua erakusten ibillitekoa, bere langille baserritar lagunari esaten:

—Ik ez dakik Euskerarik. Ik ez dakik gramatikarik. Ik ez dakik ezerbez. Gau-eskolara etorri bear dok Euskara ikasten.

Euskeraz besterik ez zakian gizon euskalduna konplejos beteta laga. Ori ondo dalakoan. Egin bear dana, «dialekto mordoiloak» akabatzeke.

Guatemala'tik urten eta Guatapeor'ean sartun. Au dok euskaldunen mixeria. Bitartean, González jaun agurgarria kezka bez betarik.

ARRINDA'tar Anes

ONDO BIZITEKO

Erdi-Aroan lekaide-etxe, monasterio, batera lekaide-gai bat urreratu zan da biziera barriaren bildur pizka bat ba-eroian, naizta gaztaroan izaten dan ames-giro biziaren indarra somatu bere barruan.

Bazkal-oste baten lekaide zar bategaz berbetan asi zan eta bere barruko kezka ori agertu eutson:

- Aita! Gogotsu nator lakaidetza asteko eta Jau-naren laguntzaz jarraitzeko ustea ta gogoa ba-daukadaz, baiña etxe aundi onek, ainbeste le-keideren artean bizi-bearrak eta bizitzearen lu-zeak ikara apur bat sartzen daust.
- Ez bildurtu, gazte! Lekaidetxe onetan zorion-tsu bizitea ez da ain gaitxa, batez be neure aol-kuak kontuan artzen ba'dozuz. Nik urte asko daroadaz emen eta zoriontsu bizi izan naz. Zuk be orixe nai dozun ezkeru, nik artu doda-zan jokabideak artu egizuz.
- Zeintzuk dira, aita, jokabide orreik?
- Iru esalditan ipiñiko dautzudaz labur-labur:

- Etxeko Nagusiaren txarrik ez esan (Nunquam male loqui de patre priore, al que el cielo escupe a la cara le cae, zeru-ra txua botaten ba'dozu, aurpegira jausi-ko jatzu).

- Zure egitekoak alan-olan egin (Fac omnia taliter qualiter, en la comunidad no muestres tu habilidad, besteen artean zure trebetasunik ez agertu).
- Zeuri ardura ez dautzuen gauzetara ez zartu (Sine mundum ut vadat quommo-do vadit, agua que no has de beber, dé-jala correr, itzi egiozu munduari doan lez joaten).

Gazteak iru aolkuak bete ebazan eta bizitza zo-riontsua igaro eban.

31.^a

30.^a ERANTZUNA

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1	A		I	G		G	U	D	A	K	O	I	G		
2	G	O	Z	A	I	T	A			N		B	X	D	A
3	E		K		Z	X	B	A	R	T		E	G	U	N
4	R		I		E	L	E			O	I	T	U		O
5	P				N	X	U	K	O	L	K	O			R
6	E	Z	E			A	K			A		A	G	A	
7	N	A	P	A	R	T	A	R		T	X	A	R		B
8		L	E			E	T			U		G		A	
9	G	A	R	B	I	X	Z	E	U		G		A	K	
10		N		A		G	A	U	R		A		Z		O
11		T		T		A	X	Z			T		K		
12	A	Z	K	E	N	B	A	K	O		Z		I	R	U
13	W	A		O		E		O	R	B	A	N			R
14	A			T	A	R			D	X	G	X	Z	U	K
15	I	Z	T	U		O	I	T	U	G	A	B	E	K	O

Gofi

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1															
2		X											X		
3															
4													X		
5															
6		X													
7															
8		X		X											
9															
10															
11															
12				X		X		X					X		
13															
14		X		X		X									
15															

Gofi

EZKERRETIK ESKUIRA

1. Televisión. Nosotros.
3. Calarse de agua. Enfermar.
4. Acerca de, sobre...
5. Formidable. Helechal.
6. Sufijo verbal de futuro.
7. Alejarse. Generosidad.
8. Y, pues, como, porque.
9. Ahumar. A través de. Los.
11. Reloj. Donde.
13. Tenedor. Carnób.
15. Camino de peatón. Visitar.

GOITIK BERA

1. Telescopio. Ventana.
3. Sacrificio. Semáforo.
5. Tres. Pares.
7. Telegrama. Pesimista.
8. Plazo.
9. Perder. Nudo de árbol.
10. Vas.

11. Subir. Amparador.
12. Confianza.
13. Voy.
15. Telegrafía.

OAR'bat: Gurutz-izki au, Sabin'en ere-duz idatzia da, esan daigun ba, rr, ll, tt ta abar.

EUSKALDUN ERDALTZALEAK

«Euskaldun erdaltzaleak
IGUINGARRIAK dira». (Sabin)

Nortzuk dira euskaldun erdeltzaleak?

- Euskaldunen artean erderaz egiten dabene euskaldunak.
- Euskeraz baiño erderaz geiago ta sarriago idazten dabene euskaldun idazleak.
- Euskerazko berbaldi eta batzarretan izketea erderara aldatzen dabeneak.
- Berbetan eta idazten euskerazko berbak edo itzak erabili bearrean, erderakadak erabilten dabezenak.
- Urrutizkin deiari «Diga», «¿Quién es?» eta antzeko erderazko berbakaz erantzuten dautsonak.
- Erderazko irratia entzuten edo erderazko ikustirratia edo urrutirudizkiña ikusten egunero denpora asko igaroten dabeneak.
- Euren umeak eta euren seme-alaba gaztetxoak egunero, luzaro, erderazko ikustirratia edo urrutirudizkiñaren aurrean eukiten dabezenak.
- Umeai euskeraz irakasten diarduen andereño ta irakasleak, eta euren umeai euskeraz egiten dautseen gurasoak, baiña euren artean sarritan erderaz egiten dabeneak.
- Euren etxeetan erderazko aldizkari ta idazti edo liburuak bakarrik euki ta irakurten dabezenak.
- Etxe-sarreran, soloan edo baratzean, «Cuidado con el perro», «Prohibido el paso», «Propiedad particular» eta antzeko erderazko iragarki edo oarrak ipinten dabezenak.
- Euskerazko Mezatara joan bearrean, erderazko Meza entzutera doazeneak.
- Sendiko baten-bat ilten danean, erderazko il-txartela eta eleizkizunak agintzen dabezenak.

Onetariko euskaldun geienak benetako abertzaleak dirala uste dabe ta baten baiño geiagotan esango dabe «Euskera barik ez dago Euzkadi'rik». Eta nasai-nasai geratzen dira.


Zoritxarrez olako euskaldunentzat, gizakiak ekintzatatik ezagutzen dira.

BILBAO'tar JON E.

ZAR

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Bizkaia'k bere Kutxa dauko



CAJA DE AHORROS
VIZCAINA



BIZKAIKO
AURREZKI KUTXA

Laguntza aundia